

Nafarroako Esaera Zaharrak. Igoa, Ihaben, Jauntsarats.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zarrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Igoa, Ihaben, Jauntsarats.

- 1358 *Adar igarra badu orrek.*
Ez dago oso ongi burutik.
- 1359 *Adiskide, aizu: gaizki esana ere ongi ar zazu.*
- 1360 *Alde guzitan, asteak ostiral bat badu.*
Ezbearrak nonnai izaten.
- 1362 *Aldiz aldiz, zapataria zaldiz.*
Noizean bein bedere obekixeago bear.
- 1363 *Amak limixkatu gabea da.*
Arlotekerian azia eta ezia da.
- 1364 *Aoan gurutze utzi naute.*
"Ao bete ortzekin utzi naute", ezer gabe.
- 1365 *Arbolik ez da adar igarrik gabe.*
Ezta kristaurik ere utsen bat gabe.
- 1366 *Ardi beltza billatzeko gau ona zegok!*
Gau oso illuna noski.
- 1367 *Arekin larreak erre ditu.*
Arekin artu-emanak erabat autsi ditu.
- 1368 *Arin, arin, alla(g)atu nintzen Getarin. Nenbillen nenbillen, alla(g)atu nintzen Sunbillen.*
- 1370 *Arria bota ta eskua gorde.*
Billaukeri itsusia. Erderaz ere ola esaten da.
- 1372 *Artzaie ta nekazarie, beti ikasle-berri.*
Baita beste kristau guziok ere beti ikasi bearra badugu.
- 1373 *Asto-arrak ume egiñen dik, i mugitu orduko.*
Jende nagiarri esana.
- 1374 *Atsa izaki gure bizia!*
Jende gutxik gogoan artzen duten egia orixe!

- 1376 *Auts, errauts egiñik utzi du.*
Osoro ondaturik utzi.
- 1377 *Aztaka, aztaka dabil.*
Nora jo ez dakiela, aztamuka, itsuen antzera.
- 1378 *Azken atsetan dago.*
Azkenekotan, il urren.
- 1379 *Balitz-balitzate!*
Bada-ezpada.
- 1381 *Bakotxek bere etxetik atera bitza kontuak...*
- 1382 *Bakotxe(r)i beretik jate(r)a eman.*
Bakoitzari dagokionetik jatera ematea, ongi dago; baña besteri loxintxa egiñez egalak ematea eta iñoren kaltezkoa dena esatea, ori oso gaizki.
- 1383 *Basoan yaio ta basoan nai: gure zamalkoak ez du etxera nai.*
- 1384 *Bei betizu(a)k bei betizue billatzen.*
Nork bere gisako lagunak billatzen.
- 1386 *Beste egitekorik ez zuenak, eskaratza landu omen zun.*
Alperkeriak gauza onik ez.
- 1387 *Betiko etorri zenak ere yoan bear zuela esan emen zun.*
- 1388 *Biar da gero.*
Gero agertuko da egia, gauza orren argitasuna.
- 1389 *Bidenabarrean egiñek bi balio ditu.*
- 1390 *Bizi naiean, bizia galdu.*
Ainbeste jendek ola: batzuk lan gogorregiz, besteak jostaketa eta apustu geiegiz.
- 1391 *Dagonean degonekikoa da ori.*
Bein bataren alde, gero bestearen alde. Kristau zuurrak aldiz ola bear du; norekin bizi den, arekin ongi etorri; baña lixintzarik eta gezurrik gabe.
- 1396 *Ezkur-urtea, sagu-urtea.*
- 1399 *Ez dik katillupean eukiko, ez.*
Ez daki ezer ixillik idukitzen, dena esan bear.

- 1401 *Gaiztoak nai artean, onaren bizia.*
Olatsu beste izkuntzetan ere. Gaiztoa onari etsai, Kain Abel onari bezela.
- 1403 *Garizume erdie negu zen, osorik ere ez bazen.*
- 1404 *Gibel aundi!*
Nagiaz eta patxara aundikoaz esana.
- 1405 *Goseak dagonarentzat, arto otza ona.*
- 1406 *Guardasol txikik, bi ezin estali.*
Diru gutxiz gauza asko ezin erosi.
- 1407 *Ik nai ttuk zopak eta klik!*
Sagarrak erosi ta saskia ere berekin eraman.
- 1409 *Iru lagun ta iru apari? ez diote asko nai elkarri!*
- 1410 *Itsu-patsu, denak alatsu.*
- 1411 *Jainkoak siestan zegola egiña aiz i!*
Elbarri eta traketsari esana.
- 1414 *Katurik mantendu nai ez duenak, arratorik berak arrapa txela (ditzala).*
- 1415 *Kondea kastatik, aiena maldatik.*
- 1417 *Leitza aundi, Iruñaren pare; Madrille ere nai giñuke.*
Leitza inguruko errietan, aundinai ta arrotzat dauzkate Leitzarrak.
- 1418 *Lengo lepotik burua.*
Lengo ibillera txarretara itzuli da, lengoa bera da.
- 1419 *Lur beltzak ogi zurie.*
Lur beltza gari-lurra.
- 1420 *Maiatza erdi otzak eta erdi goseak il emen zun.*
- 1421-2 *Martxo zarpilletue! Ik konponduko dituk Imotz, Basaburu ta Larraun balleak! -Itzultzen banaiz berriz, errekek beteko ttiat (dizkiat) geliz.*
Sorgin antzeko zerbait bezela zaukaten agidenean martxo zitala.
- 1423 *Martxo-lore, alper lore; apiril-lore, gabe baño obe; maiatz-lore, urrien pare.*
Zein den illabeterik onena landareak loratzeko.

- 1424 *Neskato zozporra, moztuko diñat kaldorra.*
Zozpor = naisa; kaldor = tontor.
- 1425 *Nola etorri, ala yoan.*
Lan egiñez irabazia, kontuz yoaten; lanik gabe etorria, nolana yoaten.
Oihenart-ek: "Laster bildüa, laster urratüa" (638).
- 1426 *Nolako Juantzar, alako Maritzar.*
Nolako senarra, alako emaztea.
- 1427 *Non den miña, an da miia.*
Nor bere miñaz edo kezka mintzaten.
- 1428 *Nor bera den tokian, Jainkoa.*
Jainkoa toki guzietan; norberak bere gauzak egitea bezalakorik eztela esan nai du, orduan Jainkoa berekin duela, beste iñor ez balu ere.
- 1429 *Ogeita amarreko ederra izan dugu.*
Bazkari ederra.
- 1430 *Onek badik.*
Illarrietan, illen mezetan, apezten kantua ola izaten omen da: Il dena aberatsa bada (astiro, luzatuz): *Onek badik, onek badik, onek badik; onek kantu luzea bear dik.* Il dena pobrea bada berriz (arin arin, atsik artu gabe): *Onek ez dik, onek ez dik, onek ez dik; onek lenbaiteen zulora bear dik.* Zer duten asmatzen gure jende umore onekoak!
- 1430 *Onek badik, onek badik, onek badik; onek kantu luzea bear dik.*
Il dena aberatsa bada (astiro, luzatuz).
- 1430 *Onek ez dik, onek ez dik, onek ez dik; onek lenbaiteen zulora bear dik.*
Il dena pobrea bada berriz (arin arin, atsik artu gabe).
- 1431 *Ontzurreak, bertan bueltak baditu.*
Gauza onari begitarte ona.
- 1432 *Oñezkoari muzin, eta zaldizkorik ezin; ola gelditu da.*
Mutil xeari neskatxak eskerrik ez ematen, eta aberatsak neskatxa arroari ere ez.
- 1433 *Orain arrapa zak ori aztaletik.*
Eskura zeukana garaiez ez artu eta iges egitera utzi duenari esaten zaio ori.
- 1434 *Or konpon! Orkonpon-ek etxea galdu egin emen zun.*
"Or konpon" esanez gauzak ez dire egiten eta zuzentzen.

- 1435 *Or konpon, konboio!*
Egin zak nai dukena.
- 1436 *Orrek babak eltzetik aterako ttu.*
Bizia ta ernea da ori.
- 1437 *"Per istam" egiñen diat!*
Apezak Oliadura ematean esaten duen itzetatik artua da esaera au. Esaera zakarra, bai gauza santuei begirunea galtzen zaielako, bai kristau bati olako gaizkia esaten zaiolako.
- 1438 *Saldis: naiz astoz ta naiz zaldiz.*
Oñez ezin zitekenak, ola igo bear zuen erri ortara, alako mendi-mutur batean dagolako.
- 1440 *Soñu aundik eta intxaur gutxi.*
Diru gutxi izan eta aundi-itxura egin.
- 1441 *Sukaldekoak zer dio? sutondokoak diona.*
"Nagusiak zer dio? mutillek diona". Oihenart-ek beste aldera: "Zer dio sutondokoak (morroiak)? zer baitio sut-aitzinekoak (nagusiak)" (434).
- 1442 *U(r)e yaio zen denboran, izarrak zeruan zeuden.*
Ori jaio zeneko, etxe ori egiñik zegoen; edo baita ere: yaio zeneko, Jaunak olako doaiz ornitu zuen ori.
- 1443 *Ur bilduek egitten ttu saltorik aundienak.*
Luzaroan ezbearra ixillik eraman duenak, uste ez ziren gauzak azaltzen ditu.
- 1444 *Zaldabe berrik, soñu ona.*
"Arto egin berriak usai ona". Zaldabe = pandereta.
- 1445 *Zaparretik atera, ta sasin sartu.*
Lan txar bat utzi, ta txarragoa artu.
- 1446 *Zatadunik nai ez, eta zaldunik izan ez.*
Imotz-en bezela.
- 1448 *Zer ari aiz? -Zotzari ziria sartzen.*
Alper lanean, ezerezkerian.
- 1449 *Zer gertaere ongi bizitu zen.*
Aurretik prest egoteak ez du kalterik.
- 1450 *Zer eperra arrapatu ziñuen!*

Zer mozkorra!

1451 *Zertako bear dizkiña(g)u orrenbeste lukainka? -Maiatz luzeak eramain zittin.*

1452 *Ziñurrik dun aña odol ixurtzen du.*
Al duenak al duen ariora ematen du.

1453 *Zirt edo zart egin bear dugu.*
Egin edo ez egin, aurrera edo atzera, ez-baian ta zalantzan egon gabe.

1454 *Zipitte utsa da ori.*
Zital utsa.

1455 *Zure esanak eta auntzen gauerdiko eztule, bik bat.*

1456 *Zu maratil bille beti.*
Beti aitzeki billa, besteren naiera edo esanera ez jartzeko.